

Kultur agenda

Martxoak 5 ostirala
Martxoak 13 Igandea



Kiko Veneno ANTZOKI Zaharrean

Kiko Veneno kantariak kontzertua eskainiko du ostegunean, martxoak 11, Antzoki Zaharrean, 20:00etan. Ibilbide luzea du musikaren munduan Kiko Veneno: Rumba eta rock musika-estiloak intasun handiz nahasten dituen musikari adokitzarlea da.

Karidadeko Benta Lugaritzen

Jon Mata bertsolari zumaiañaren inguruan sorturako taldea da Karidadeko Benta. Bertsoak eta koplak ditu oinarri, baina tangoaz, flamenkoaz nahiz munduko beste hainbat txokotako musikaz ere ziri-zinduta daude abestiak. Garai bateko herra orkestraren itxura du. Antiguako Lugaritz Kultur etxean ariko da Karidadeko Benta datorren ostiralean, martxoak 12, 20:30ean.



"Yuri Sam" antzezlana Egian



Antzerkiola Imaginarioak "Yuri Sam" antzezlana abangoardista eskainiko du martxoaren 10etik 12ra bitartean, Egia kultur etxean, 20:00etan. Asteazken eta osteguneko saioak, hilak 10 eta 11, euskaraz izango dira. Itzalen erresumatik mundura itzuli da Yuri Sam. Xaman baten espiritua da, Kultur jatorri oso ezberdinetatik datozen dantzak, keinuak eta mugimenduak uztartzen ditu antzezlaren koreografiak. Ander Lipus da protagonista.

Tanta, Borroka eta Akabuzazte Aitzan

Tanta, Borroka eta Akabuzazte musika taldeak ariko dira Aitzia kultur etxean larunbatean, martxoak 6, 21:00etan. Kutsu esperimental handia du Tanta talde sortu berriak. Euskal musikari oso zailduta dauden musikari osoz osaturik dago, eta musika eta irudia uztartu ohi dituzte kontzertuetan. Gordinak dira taldearen kantuak, oinarri erritmiko sendoak.

